



**EHUN MENDIEN  
LEHIAKETAKO ARAUDIA**

## **I. Definizioa eta iraupena**

*Euskal Herriko mendien katalogoan sartuta dauden ehun menditara igotzean datza Ehun Mendien Lehiaketa, betiere, araudi honetako artikulua hauetan zehazten diren baldintzak betez.*

## **II. Lehiakideak**

1.- Euskal Mendizale Federazioa osatzen duten mendi-klubetan izena emanda dauden pertsona guztiek parte har dezakete lehiaketan; baina, horretako, urteko federazio-lizentzia izan behar dute, lehiaketa hasten den unetik eta lehiaketak dirauen bitarte osoan zehar. Zazpi urte betetzen diren unetik has daiteke lehiaketan parte hartzen.

2.- Norbait klub batekoa baino gehiagotakoa bada, urte bakoitzean klub horietako bakar baten izenean lehiatu ahal izango da soilik. Lehiatzen ari den bitartean kluba aldatzen badu, klub berrian jarrai dezake lehiatzen.

## **III. Mendi puntuagarriak**

1.- Honako katalogo honetako herrialdeetako zerrendetan jasota dauden Euskal Herriko mendi guztiak hartuko dira mendi puntuagarritzat.

2.- Era berean, mendi puntuagarritzat hartuko dira herrialde bakoitzaren ondoko eremuetako zerrendetan agertzen diren mendiak ere, Euskal Herrikan kanpo egon arren, tradizioz dagokien herrialdearen luzapen geografiko modura ulertzen direnean eta euskal mendizaleek sarri samar igo ohi dituztenean. Mendi horiek Euskal Herriko mendien baldintza beretan onartuko dira Ehun Mendien Lehiaketarako.

3.- Euskal Herrikan kanpoko mendiak ere baliagarriak izan daitezke lehiaketarako. Katalogoaren bigarren atalean, Iberiar penintsulako eta Pirinioetako mendigune garrantzitsuenetako gailur puntuagarrien zerrenda ageri da. Katalogoan agertzen ez diren mendiak Ehun Mendien Lehiaketarako puntuagarri izatea nahi bada, garrantzi altimetrikoarekin eta balio geografikoarekin lotutako ezaugarriak izan behar dituzte, Ehun Mendien Lehiaketako mendizale baten ibilbide historikoan agertzeko modukoak izan daitezen horrela. Horrelako mendiak onartzeko, Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiko idazkaritzaren oniritzia beharko da. Euskal Herrikan kanpo puntuatutako mendiak ezin izan daitezke hogeita bost baino gehiago, eta, horietatik, katalogoan ez daudenak gehienez ere bost izan daitezke. Igoaldi horiei buruzko informazio guztia historialarekin baterako emango den eranskinean adierazi beharko da.

## **IV. Igoerak**

1.- Mendi batera egindako igoerak balioa izan dezan, mendi horren punturik gorena lortu behar da nahitaez, motordun bitartekorik gabe; mendiaren edozein isurialdetatik egin daiteke igoera.

2.- Egun bakoitzeko mendi bakarra igo daiteke lehiaketaren barnean. Gehienez hogeita mendi puntuak daitezke urtean, eta ez dago igoaldien gutxienezko kopururik.

3.- Gutxienez bost urte naturaleko epean eta gehienez hamarrekotan gauzatuko da lehiaketa.

4.- Ehun Mendien Lehiaketa bateragarria da klubek antolatzen dituzten bestelako lehiaketekin (altuera-lehiaketak, mendi-lehiaketak, zeharkaldiak, etab.); ildo horretatik, beste mendi-talde baten lehiaketa edo txapelketa batean puntuatutako igoaldi bat puntuagarria izan daiteke Ehun Mendien Lehiaketan ere, aldi berean.

## **V. Xedapen orokorrak**

1.- Ehun Mendien Lehiaketa adierazitako epeetan eta bete beharreko arauak betez amaitzen duen lehiakidea eskubidea izango du ofizialki Finalista Ehundun gisa aitor dezaten, eta Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiaren kide bihurtuko da.

2.- Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidia ohorezko elkarte bat da, Ehun Mendien Lehiaketa bateko edo batzuetako finalista izendatu diren mendizaleek osatutakoa.

3.- Ehun mendietako igoaldiak bukatu dituen mendizaleak, hau da, Finalista Ehundun titulua jasotzeko eskubidea duen mendizaleak, eskabide-orria bete beharko du Anaidian sartzeko, eta idazkaritzan izapidetu beharko du, bere klubaren bidez.

4.- Bereziki xede horretarako prestatutako inprimakietan aurkeztu behar dira eskariak, eskatzen diren datu guztiak emanez, eta klubaren lehendakariaren oniritzia ere jasoko da eskaera horretan; ematen diren datu guztien egiazkotasunaren eta zehaztasunaren ardura hartuko du hark, bere sinaduraren eta zigiluaren bidez.

5.- Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiko idazkaritzara igorriko dute klubek elkarte horretan sartzeko eskabideari dagokion historiala, urteko martxoaren 1a baino lehen. Anaiartera data horretarako iristen ez diren eskabideak hurrengo urtean izapidetuko dira.

6.- Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiak idazkari bat izango du, eta Euskal Mendizale Federazioaren batzorde betearazleko kide izan daiteke idazkari hori. Araudi hau betetzeko beharrezkoak diren zereginenez idazkari hori arduratuko da, eta, horretarako, behar bezala bideratutako eskari guztiak berraztertuko ditu. Araudiari begira irregulartasunen bat aurkituz gero, eskatzailearen klubari jakinaraziko dio, okerra zuzendu dezan eta historiala onartua izan dadin. Okerrak zuzendu ondoren eta erreklamazioei erantzun ondoren, historiala onartu dela jakinaraziko du, eta dagozkion diplomak emateaz eta finalisten erregistroa eguneratzeaz arduratuko da.

## **VI. Lehiaketa zabaltzea**

1.- Finalista Ehunduna lehia daiteke hurrengo edizioetan ere, lehen aldiko baldintza beretan, eta, kasu horretan, honela izendatuko da finalista hori: Finalista Ehunduna Bigarrenez, Finalista Ehunduna Hirugarrenez, eta abar.

2.- Lehiaketa horietan igotako gailurrek desberdinak izan behar dute elkarrekiko ez ezik, aurreko lehiaketan edo lehiaketetan igotako gailurren zerrendetan zetozenetatik, eta, beraz, sorta berria osatuko dute.

3.- Salbuespen gisa, aurreko lehiaketetan puntuatutako mendien ehuneko hogeira arte onar daitezke, mendi horiek igotzeko guztiz ibilbide desberdina egin dela ziurtatzen bada. Ehuneko hogeit hamarren barruan, katalogoan agertzen ez diren Euskal Herriko beste gailur batzuk ere sar daitezke, bost, gehienez ere, betiere mendizaleentzat interesgarri jotzen badira eta Ehun Mendien historialean agertzeko modukoak badira. Nolanahi ere, horrelako mendiak onartzeko, Anaidiko idazkaritzaren oniritzia beharko da. Igoaldi horiei buruzko informazio guztia eranski batean adieraziko da.

4.- Lehen lehiaketatik aurrera, urtean puntua daitezkeen gehieneko mendi kopurua hogeita bostekoa izan daiteke.

## **VII. Azken xedapenak**

1.- Honako araudi hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako historialei aplikatuko zaie.

2.- Lehiaketaren hasierako urtean indarrean den araudiak indarrean jarraituko du lehiaketaren amaierara arte.

3.- Lehiaketa hasten den urtean indarrean dagoen Euskal Herriko mendien katalogoan agertzen den mendi zerrenda izango da lehiaketa horretarako baliagarria, eta horixe erabili beharko da lehiaketa amaitu arte.

4.- Honako araudi honen interpretazioan edo irismenean sor daitekeen zalantza oro Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiko idazkaritzak ebatziko du.

Elgoibarren, 2017.eko azaroaren 11n  
**EHUN MENDIETAKO MENDIZALEEN ANAIDIA**  
Joseba Undurraga Bidasolo  
Idazkaria

O.E.  
**EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA**  
José Ramón Alonso Rodrigo  
Presidentea